

Eskolaren zentzua, ijitoen ikuspegitik

Anne Marie Mamontoff

Perpignaneko Unibertsitatean "Minorien psikologia sozialean" katedraduna
Itzultzailea: Nahia Zubeldia

Frantzian 16 urte arte haurrak eskolatzea legez behartzen denean, zer arrazoi motak bultzatzen ditu ijitoen gurasoak euren haurrak eskolatzera? Kultura antagonikoen topaketa-markoan, termino hori adiera ideologiko eta praktioetan ulertuz, noski, ingurunetik inposatzen zaigun usadiozkoaren gainetik kultur esanguraz beteak diren errepresentazio batzuk daudela erreparatzera garamatza ikerlan honek. Izan ere, ijitoen hezkuntzak nasaiki garatzen duena balio komunitarioak eta identitate soziala baitira. Banako kriterioak garraiatzen dituen Hezkuntza Erakundearekiko arras arrotz sentituz talkan sartzen dira berarekin. Horrela, bada, gure gizartean balio-estatusa daukan objektu sozialaren gaineko errepresentazio-egitura, ijito-gizartean identitatearen desegituratzailea den objektutzat hautemanik zalantzan jartzen da. Aldi berean, errepresentazio horren dinamikaz itauntzen da, jakinik eskola-praktikak ez dituztela gurasoek sostengatzen ezta sustatzen ere. 2004 eta 2010ean burututako bi ikerketaren emaitzek garbi erakusten digute eskola objektu sozial bezala ez dela barneratua haien gogozko unibertsoan.

GAKO-HITZAK: Ijitoak · Errepresentazio sozialak · Eskola · Kultura.

School from the point of view of the Gypsies

In France education is compulsory for children under 16. What pushes Gypsy parents to send their children to school? In this point of contact of antagonistic cultures, understanding this term with an ideological and practical meaning, beyond the usage imposed on us by the environment, the present study aims to help us see that there are representations that are full of cultural meaning. In fact, the value of community and social identity are generously developed in the traditional education provided by Gypsy culture. The Gypsy community clashes with institutional education because of a lack of identification with the different criteria that the latter implies. Understood from this perspective, the structure of the social institution that has value and status in our society is seen as the force that breaks down the identity established by the Gypsy community and is viewed with suspicion. At the same time, taking into account that education is neither supported nor encouraged by the parents, the very organization of the education system is questioned. The results of two studies carried out in 2004 and 2010 clearly show that school as a social object is not part of their world view.

KEY WORDS: Gypsies · Social representation · School · Culture.

Jasotze-data: 2011-06-08. Onartze-data: 2011-08-09.

Lan honen helburua da erakustea gizarte-talde batek nola lor dezakeen talde menderatzailearekiko duen autonomia gordetzea, estrategia soziokognitiboen bidez, nortasuna babeste aldera. Hautatutako adibidea ijitoena da; hain zuzen, eskolarekin duten harremanarena. Frantzian, ijitoek bi arrazoi nagusi direla medio jartzen dituzte haurrak eskolan: hamasei urte arte eskolatzea derrigorrezkoa delako, eta diru-laguntzak galtzeko beldurra dutelako. Sedentario bihurtzeak eta eskola-praktikak behin eta berriz egiteak ijitoen ikusmoldea aldatuko zutela uste genuen; hau da, sistema onartzerantz eta, pixkanaka, lorpenerantz joango zirela. Baina ez da hala gertatu, ezta gutxiago ere. Ijitoak eskolan barneratzeko martxan jarritako pedagogia-ekimen ugarietako gehienek porrot egin dute. Ikerketa honi esker konturatu gara aurkako ideologia eta ohiturak dituzten kulturek topo egiten dutenean, irudipen batzuek, esanahi kulturalak direnez gero, ingurumenak inposatutako praktikari asko eragiten diotela, nortasun-erreferentziak baitaramatzate. Ijitoen hezkuntzak komunitate-balioak asko garatzen ditu, eta haien hezkuntzak eta eskola-erakundeak elkarren kontra jotzen dute, eskolak haientzat zentzurik ez duten irizpide indibidualistak transmititzen baititu. Nolako izan daiteke, beraz, «eskola» gizarte-objektuari dagokion irudipenaren egitura eta dinamika, kontuan hartuta gure gizartean balioztat jotzen dela, baina ijitoen gizartean nortasuna desegituratzen duen objektutzat daukatela?

Bi ikerketa egin genituen gai horretaz; bata 2004an, eta bigarrena 2010ean. Biek azaleratu zuten «eskola» objektu soziala ez dagoela mundu mentaletan barneratuta. Esperantza tradizionalan oinarrituta ulertzen da. Ez dago eskolaren benetako irudipenik (hau da, irudipen egituratu edo autonomorik); irudipena ez da egituratua (edo ez-autonoma). Lan hau hasteko, bi kontzeptu horien oinarriak argituko ditugu. Bi garaietan irudipena ikertzeko eta datuak aztertzeko erabiliko metodologiek ikasketa tradizionalaren aurpegi ezberdinak agerian uzten dituzte, baita eskolaren ikuspuntu berezia ere, 2004tik 2010era gutxi aldatu dena.

1. Irudipen «sendoak» eta irudipen «ahulak»

Serge Moscoviciren irudipen sozialaren nozioa da (IS) hemen erabiliko duguna. Hala, eraikuntza-modu soziokognitiboen errealitatea bereganatzeko jarduera mentala adierazten dute, baina berezitasuna da berreraikuntza mentala egiteko objektu sozialei eredu kultural batetik abiatuta ematen zaiela zentzua. Kulturak irakasten digu zein zentzu eman behar zaien objektu sozialei, balio-eskala baten arabera; hortaz, errealitatea manipulatzeko eragiketa kognitiboa sartzen da jokoan. «Gure ustez, ereduak, subjektuak barneratutako forma gisa, subjektua bultzatzen du ereduarekin bat datozen esanahien konfigurazioari ematera lehentasuna; beraz, gauzak modu jakin batera planteatzeko joera ematen dio» (Camilleri eta Vinsonneau, 2002: 14).

Kultura dela-eta, gizarte-talde batek estimulu bati ematen dizkion esanahi sendo eta banatuenak talde-memorian errotzen dira. Ondorioz, subjektuek talde osoak baloratzen eta etengabe berregiten dituen jarrera, irudipen eta portaerak eraikitzen dituzte (Camilleri, 1985). ISak «interpretazio-matrize kulturalan» barneratzen dira (Grise, Vergès eta Silem, 1987). Jakintza, tradizio eta ideologietatik abiatuta pixkanaka eraikitzen diren pentsamoldeak dira (Seca, 2001). Eraiki eta sedimentatu egiten dira, eta historian aldatu egiten dira. «Agertze fasea bi etapa

hauen artean kokatzen da: objektu berri eta problematiko bat agertzearen eta objektu horri dagozkion jakintza egonkor eta banatuak agertzearen artean» (Moliner, 2001: 248). Orduan, kulturak objektu sozialei eman behar zaien garrantzia agintzen du, talde-ideologia, sorkuntza, balio eta praktikak sortzen ditu, eta memoria kolektiboan irudipen «sendo» edo autonomoen bidez sustraitzen. Beraz, kultura batetik bestera, objektu sozial jakin bati ez zaio garrantzi bera ematen: kultura jakin batean objektu sozial garrantzitsua denak (hau da, irudipen «sendoa», autonomoa daukanak) baliteke beste kultura batean esanahi ezberdina izatea. Hala, osagai berri batek talde baten ingurumena aldatzen duenean eta pentsamolde tradizionalak zalantzan jartzen dituenean, irudipen berriak sor daitezke. Hala ere, kasuen arabera, agertzen ari den irudipenak ezaugarri ezberdinak izango ditu, objektu sozialak taldearentzat duen garrantzia dela-eta. Horregatik aipatzen dira irudipen «sendoak» eta irudipen «ahulak».

Dirudienez, alde batetik, irudipen sendoak, egituratuak daude; horiek esanahiak hartu eta eman egiten dituzte, kognizio, sinbolo eta sinesmen kateak biltzen dituzte; bestalde, IS ahulak daude; horiek gutxi antolatuta daude, nahiko galkorrak dira, eta irudipen sendoetan uztartu edo barneratzen dira, «egonkorragoak», biltzaileagoak baitira. Ingurumeneko objektu orok (sozial, fisiko edo bestek) ez du beti IS sendo edo autonomorik sortzen, hau da, egitura bakarreko (muin zentraleko) sistema sozio-kognitiborik (Seca, 2001: 43).

Ildo horretatik, azter dezagun ISen autonomiaren ala ez-autonomiaren nozioa.

Autonomiaren auziak printzipio antolatzaile bakarrari egiten dio erreferentzia, hau da, muin zentralari edo muin egituratzaileari. Horren bidez lortzen dute irudipeneko osagai guztiek esanahia (*funzio sortzailea*). Muinak zehazten du, baita ere, irudipenaren kognizioak lotzen dituzten erlazioen nolokotasuna (*funzio antolatzailea*) (Abric, 1994). Definizio hori irudipen sozial autonomoei edo irudipen «sendoei» dagokie. Hau da, muin egonkor eta egonkortzaileak inguruko guztia «gobernatu» egiten du. Inguruko kognizioak operazionalak dira; izan ere, muina praktikan eta iritzi-hartzeetan gauzatzen dute. Beraz, teoriarik, irudipen autonomoak multzo oso koherentea osatzen du, buru bakarrak antolatzen baitu. Muin zentrala irudipenaren egonkortasun-eremua da, argi eta garbi. Memoria sozialaren eta berezitasun kultural, soziologiko eta historikoen arabera da. Hortaz, irudipen autonomoak gutxi eta astiro aldatzen dira, baldintza bereziak izanez gero.

Irudipen ez-autonomoek, aldiz, guztiz bestelako ezaugarriak dituzte. Irudipen «ahulak» dira, egituratuta ez dauden heinean. Horrelakoak dira, esate baterako, objektu zaharren arabera soilik eraiki daitezkeen objektu sozial berriak (Vergès, 2001). Printzipio antolatzaile bakarrak, hau da, muin zentralak egituratzen dituen irudipen autonomoak ez bezala, irudipen ez-autonomoak kanpo-gai bat baino gehiagoren inguruan antolatzen dira, eta gai horiek kontrajarriak izan daitezke. Hala, irudipen ez-autonomoen printzipio antolatzaileak askotarikoak dira: «Irudipen sozial ez-autonomoak anizkunak dira, besteren artean, printzipio antolatzaile anitzei lotutako baldintza-sistemei dagokienez. Horiek horrela, irudipen sozial anizkuntan gatazka kognitiboak gerta daitezke» (Flament, 1994: 44). Gatazka horiek konpontzeko bide bat IS autonomo bihurtzea izan daiteke.

Ikerketa batzuek IS ez-autonoma ezberdinak agertzen direla azaleratu dute; hala ere, lan horietatik ateratzen den ideia nagusia da irudipen horietan objektu sozialaren pertzepzioa erabilitako printzipio antolatzailearen arabera aldatzen dela (Morin eta Vergès, 1992; Morin, 1994; Browarski, 2001). Ikerketa honetan, arreta berezia eman diegu Katerelosen lanei; izan ere, bi kontrako printzipiotan oinarrituta egituratutako ISak aipatzen baitituzte. Esaterako, ikerketa batean, eremu «gogorretan» (ZEP) dauden eskoletan lan egiten duten Lehen Hezkuntzako irakasleek eta eremu «normaletan» jarduten dutenek hezkuntza-harremanaz duten irudipena aztertu zuten. Lan horretan, idazleak azpiegitureketa periferikoaren (AEP) nozioa erabiltzen du, irudipenaren dinamika azaltzeko. Katerelosen iritziz, irudipenaren sistema zentralaren ardatza harreman pedagogiko mota liberala litzateke, eta AEParen ardatza harreman mota tradizionala, autoritarioa litzateke (Katerelos, 1993). Hala, baldintzek beharrezko egiten dutenean, AEPa aktibatu egiten da eta muin zentrala ordezkatu egiten du, baina muin zentrala zalantzan jarri gabe. Beraz, AEP autonomo terminoak adierazten du ikuspuntu kognitibotik dinamika ekonomikoa dagoela: «azpiegitureketa periferikoa sistema zentralaren menpe jartzea errealitatea era ekonomikoan kudeatzeko modua litzateke; izan ere, agertzen diren egoerei egokitutako irakurketa-taula azkar aktibatu egiten baita» (Roussiau eta Bonardi, 2001: 166). Beraz, azpiegitureketa periferikoak sistema ekonomiko bihurtzen du, eguneroko praktikek muin zentrala zalantzan jartzen dutenean muina babesteko bidea ematen baitu. «Bi sistemak bizikide dira, kontraesanik gabe, bata ala bestea aktibatzen den neurrian» (Flament, 1994,: 102).

2. Eskolaren irudipenaren azterketa diakronikoa, 2004tik 2010era

A. Prozedurak

2004an izandako prozedura honela zegoen antolatuta: lehenik, esplorazio-fasea, ikasketa tradizionalari buruzko diskurtsoa eta eskolaren irudipena hurbildik aztertzeko. Esplorazio-fasean elkarrizketa luzeak egiten genituen, ikasketa tradizionalari buruzko informazioak jasotzeko helburuarekin. 80 ijito sedentario eta erdi-sedentariori egin genien elkarrizketa: batzuk Espainian kokatutako ijitoak ziren, besteak Frantzian kokatutako ijitoak, gizonak zein emakumeak, eta 45 urterik gorakoak denak. 2004ko irudikapenari buruzko azterketarako, bi galdeketa erabili genituen: aipamen-galdeketa (Vergès, 2001) batetik, eta zalantza-galdeketa (Moliner, 1994) bestetik. Lehenerako laginean 175 pertsona sedentario eta erdi-sedentario zeuden, Espainian eta Frantzian kokatutakoak, 7 eta 16 urte arteko mutil eta neska eskolatuak, eta 17 eta 70 urte arteko gizon eta emakumeak. Eskolan ijitoekin zeuden 140 ume ez-ijitok galdeketa berari erantzun zioten, aipamenak konparatu ahal izateko. Zalantza-galdeketa 180 pertsonari egin genien; 7 eta 20 urte arteko mutil eta neskak ziren, ijito sedentarioak, erdi-sedentarioak eta ijito bidaiariak. Ez-ijitorik ez zegoen laginean. Bigarren ikerketan, 2010ean, objektuaren ezagutzaren teknika erabili genuen (Abric eta Vergès, 1996). 160 pertsonari egin genien galdeketa; 7 eta 18 urte arteko mutil eta neskak ziren. Galdeketa buruzko xehetasun batzuk eman ditzagun.

Aipamen-galdeketa, pertsonen berezko elkartzeak jaso genituen, hitz bat edo gehiago emanez. Hitz eman, eta pertsonari galdetzen genien zein hitz zetozkien gogora. Bost erantzun eman behar zituzten, gutxienez, irudipenaren talde-dimen-

tsioa neurtzeko, gehiengoarena zen jakiteko. Adostasuna neurtzeko, aipatutako hitz bakoitzaren maiztasuna hartu genuen kontuan. Gehienetan, batez besteko tokia erabili genuen, bakoitzaren sailkapenaren sintesi gisa. Kasu horretan, aipamen-ordena da kontuan hartzen dena; horretarako, galdekatutakoei eskatu genien aipatu zituzten bi termino garrantzitsuenak azpimarratzeko. Maiztasuna eta batez besteko lekua batera aztertuta, zentraltasunaren pista batzuk azaleratzen dira. Hala ere, gure kasuan, maiztasuna baino ez genuen kalkulatu; izan ere, aipamena ahoz egiten zenez (gehienek ez baitakite ez irakurtzen, ez idazten), galdekatutakoek ezin zituzten bi termino garrantzitsuenak azpimarratu. Hortaz, zerrenda irakurri behar genien, eta bi garrantzitsuenak zein ziren galdetu.

Zalantza-galdeketa xedea aipamen-galdeketa osagai nagusien (hau da, maiztasun gehien dutenen) zentraltasuna baieztatzea da, «eskola» objektua definitzeko ezinbestekoak diren ezaugarriak zalantzan jarritz. Galderak honela formulatu genituen: «David, egunero, irakurtzen, idazten eta kontatzen irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da?». Aipatutako ezaugarriak ken-duta pertsonak objektua ez badu ezagutzen, ezaugarri horiek zentralak direla on-dorioztatzen dugu. Ezaugarri guztientzat egin genuen zalantza-galdeketa, gehie-netan maiztasun handia baitzuten aipamen-galdeketa.

Azkenik, objektuaren ezagutzaren galdeketa ere zentraltasuna baieztatzea du helburu, baina dagokigun populazioari hobeto datorkio baieztapen-modu hori. Irudipena osatzen duten osagaiak antzeman ondoren (aipamen-galdeketa bidez), pertsonen galdetu genien zehaztutako ezaugarriak objektuaren bereizgarriak diren; horretarako, hiru erantzunen artean aukeratu behar zuten: «Ez da batere bereizgarria», «Beharbada» edo «Benetan bereizgarria da».

B. Emaizak

Elkarrizketa luzeek ikasketa tradizionalaren ezaugarriak eta eskolaren zentzugabetasuna agerian utzi zituzten. Galdeketa emaitzek azaleratu zuten irudipena ez-autonoma zela, oso lotura gutxi zuela 2004ko eskola-edukiekin, eta berdin jarraitzen zuela 2010ean.

1. Ijitoen «eskola», irakaskuntza berezia

Ijitoen ikasketa tradizionalak bi helburu ditu: lan-praktika anitzak ikastea, bizitzeko beharrezkoak baitira, eta taldeko balioak eta arauak barneratzea. Lan-ikasketak ere bi ardatz ditu: lanbide asko eta askori dagokien jakintza lortzea, eta ingurumenari egokitutako hizkera ikastea. Lehen kasuan, haurrak praktika anitzetan prestatzen dira. Lanbide askotan jarduteko gai izan behar dute, eta gainera, oso eskulan-trebezia anitzak ikasten dituzte. Adibidez, ijitoek gaitasun artistikoak erabil ditzakete, udan musika jotzeko edo orkestra ibiltari batean abesteko, eta neguan merkataritzan edo merkatuetan jardun dezakete. Espezializazio anitza da: ikasketa ez da lanbide jakin bati dagozkion praktikak bereganatzera bideratzen, baizik eta lanbide askori dagozkien trebezia kognitibo, artistiko edo/eta eskulanezkoak lortzera. Balio-aniztasun horri esker, lekuz aldatu ahala testuinguru ekonomikoei egoki dakizkieke, eta beraz, taldetik kanpokoarekiko dependentziarik eta soldatapekotasunik gabeko askatasuna babesten dute. Bigarren kasuan, ikasketa harrera-kulturari dagokio (hizkuntza, ohiturak, itxaropenak, arauak, sinesmenak,

legeak...); hau da, inguruko gizarteko kode kulturala, ez-ijitoaren «psikologia» bereganatzeari. Hemen, helburua taldetik kanpokoekin zerbitzu-emia negoziatzeko gai izatea da, objektu jakin batzuk erostea komeni dela konbentzitzea, kulturari, pentsamoldeari egokitutako diskurtsoa erabiliz. Balizko «bezeroen» pentsamoldeen eta praktika normatiboen planteamendu hori prestakuntzaren alderdi garrantzitsua da.

Jarrera egokien kodeari dagokionez, praktiken esanahia zehatzen duten balioen corpusaren arabera da. Umeek oso azkar ikasten dute arau-irizpide horiek bete behar dituztela; hau da, alor materialetik kanpo, ordutegi, presentzia, eskola-emaizta eta abarren betebeharretatik kanpo, alor sinbolikoko betebeharrak ere bete behar direla, taldearen nortasuna eta ohorea babesteko. Ijitoentzat, familia da umeen ikasketa eta hezkuntza bere gain hartzea zilegi duen talde bakarra. Ez dute beste inongo irakaskuntza-iturririk aintzat hartzen, ez forman, ez edukian, ez ideologian; gure gizarteetan, aldiz, hezkuntza gurasoei dagokie, baina eskola-erakundeak ere badu hezkuntza-eginkizunik. Ijitoen ikusmoldean, familiak ditu hezkuntza-, pedagogia- eta lanbide-funtzioak, eta oso goiz transmititzen dizkie umei. Transmisioa diskurtso eta eskulan praktiken bidez egiten da, belaualdiz belaualdi. Umeek besteek bezala eginez ikasten dute, lanetan parte hartuz, taldeak urrundik zaintzen dituela. Gure gizartean funtsezkoa den hierarkia-distantziarik ez dago haien gizartean. Ikasketa (eta lana, umeek lan eginez ikasten baitute) nagusi hierarkiko eta menpeko, irakasle eta ikasle nozioak guztiz baztertzen dituen komunitate-eremuan egiten da. Eginkizunak adinaren eta sexuaren arabera banatzen dira, ez tokien zilegitasunaren arabera. Lan-ordutegiak tokiak eta iraupena bezain aldakorrek dira. Umeak taldeko osagai ekoizleak dira. Lortutako ezagutzak segituan erabiltzen dituzte, jakintza praktikoa ematen baitiete umei, familiaren mantentzean parte har dezaten, gazte-gaztetik. Dirua ez da helburua, ez du boteretik ez nagusitasunik ematen; bizirauteko eta bizimodua irauarazteko bitartekoa da; ideologia horren oinarrian joateko eta etortzeko askatasuna dago. Irabaziak familian banatzen dira, eta egunerokoan bizitzeko erabiltzen dira, erretirorik edo aurrezirik kontuan hartu gabe.

Azkenik, elkarrizketek agertu dute eskola ezegokia, moldakaitza eta, batzuetan, arrazista dela, eta transmititzen dituen balioak haien tradizioari erabat kontrajarririk direla. Ezegokitasunak bi aurpegi ditu: edukiena eta irakasteko moduarena. Izan ere, edukiak erabat ezegokiak dira ijitoen ezaugarri intelektualentzat eta beharrentzat. Irakaspen praktikoak eskatzen dituzte, beren gaitasun-alorretan, hau da, eskulanetan berehala erabiltzeko modukoak: «Ijitoa ez da eskolarako egina. Gu eskulangileak gara». Horrez gain, eskola-edukiek mobilizatzen dituzten hainbat jarduera mota berezitan, esaterako, arretan, memorian edota arrazoiketa abstraktuan, ez dira trebe sentitzen... Ijitoek, berriz, eskola sistema moldakaitz, zatitu eta arrazistatzat daukate, umeak eremu itxi eta behargarrian giltzapetzen dituen tokitzat. Familiak eta beren kulturak defenditutakoaren kontrako diziplina jasaten dute. Ume ijitoak espazio- eta gorputz-askatasunean hezten dituzte; hau da, mugimendu-askatasunean. Espazio irekian handitzen dira, eta eskolan onartzen ez diren jarrerak askatasun osoz izan ditzakete. Esaterako, diziplinak kode moral baten arabera baino ez du zentzurik. Gizarte-praktikak, beraz, arau materialetatik kanpo garatzen dira. Hortaz, ijitoen portaerak gizartearen arabera makurtzat jotzen dira. Ijitoei diziplina zer den galdetzen zaienean, aho batez erantzuten dute:

«Adineko pertsonenganako errespetua eta kortesia izatea». Hala, eskola-sistemako zigorraren definizioa kontraesana da haientzat. Eskoletara beti joaten ez den umeak, etxeko lanak egiten ez dituenak edo arretagabeak ez du, beren ustez, hutsik egiten, ezta diziplinaren aurka egiten ere.

Ijitoek eskola batzuek egiten dituzten ahaleginak nabarmentzen dituzte. Izan ere, ikastetxe batzuetan, ijitoentzako ikasgela bereziak daude, beren beharrei hobeto egokituak (ordutegi egokituak, etxeko lanik ez, irakaskuntza arinagoak...). Baina, aldi berean, eskola segregazionista dela diote, beren umeak ez dituztelako besteak bezala tratatzen.

Azkenik, eskolak darabilen ideologia indibidualista, bakarkako arrakasta eta familiarekiko independentzia defenditzen duena, gizarte ijitoaren kontrakoa da. Izan ere, ijitoen ideologia komunitarioa da; «bakarkako arrakasta» terminoa bera ez da haien mundu semantikoaren barne. Ijitoentzat, gizarte-arrakasta taldearen berezitasuna egiten duena errespetatuz eta integratuz lortzen da: taldekideekiko atxikimendu-lotura egunero bizitzean datza, hausturarik gabeko elkartasuna erai-kitzeko. Ijitoen nortasuna «barnetik» eraikitzen da, taldetik kanpokoak baztertuz, askatasuna eta independentzia gordetzeko. Ume ijitoak gizareratzen dituen sistemak independentzia eta dependentzia irakasten dizkie, aldi berean: independentzia, gazte-gazte hainbat lanbide ikasiz (eta, beraz, ez-ijitoenganako askatasuna gordez); eta dependentzia, bere taldearenganako, ezin baitu taldetik irten, ezta aldendu ere. Gehienetan, gizareratzea handicap moduan ikusten dute, jakintza galtzen baitute eta taldearekiko atxikimendu-lotura hausten baitzaie. Hortaz, eskola nortasuna eta balioak arriskuan jartzen dituen erakundetzat daukate. Ezin da gizarte- eta lanbide-arrakastarako erreferentzia izan, inondik ere ez.

2. Eskolaren irudipen ez-autonomia 2004an?

Irudipenaren edukia aurkezteko, hona hemen aipamen-galdeketeri bi populazioek emandako emaitzak eta zalantza-galdeketeren emaitzak.

a. Ijitoen eta ez-ijitoen aipamenak

Umeei eta gurasoei haientzat eskola zer den galdetu diegunean, gehienetan, ez dakitela erantzun digute. Apur bat tematu egin behar da ahozko erantzunik lortzeko.

I., II. eta III. tauletan, ume ijitoen aipamenak eta aipamenen maiztasunak —handienetik txikienera— agertzen dira. Hiru kategoriatan sailkatu ditugu: 1/ eskolaren baliaagarritasun-alderdiari dagozkion erantzunak; 2/ eskola ikasteko lekutzat daukaten erantzunak; 3/ ikuspuntuak adierazten dituzten erantzunak.

Ume ez-ijitoen aipamenak (IV. taulan) bi kategoriatan sailkatu ditugu: batetik, eskolako irakasgaiak eta irakaspenak; eta, bestetik, eskolaren ezaugarriak.

I. taula. Eskolaren baliagarritasun-alderdiari dagozkion erantzunak.

Eskola baliagarria da...	Maiztasuna
1. Lanbide bat aurkitzeko	% 99
2. Diru-laguntzak lortzeko	% 99
3. Administrazio-agiriak betetzeko	% 97
4. Gida-baimena lortzeko	% 96
5. Gurasoek deskantsatzeko	% 96
6. Ez-ijitoak ezagutzeko	% 87
7. Jolasteko	% 85
8. Dirua irabazteko	% 80
9. Diploma bat lortzeko (brebeta)	% 80
10. Ikasketa luzeagoak egiteko	% 50
11. Argiago bihurtzeko	% 29
12. Independente bihurtzeko	% 23

II. taula. Eskola ikasteko lekutzat daukaten erantzunak.

Escolak hauek irakasten ditu	Maiztasuna
13. Irakurtzen, idazten eta kontatzen	% 100
14. Diziplina	% 100
15. Garbitasuna	% 98
16. Obeditzen	% 98
17. Kortesia	% 98
18. Musika	% 97
19. Zuzentasuna	% 95
20. Ongia eta gaizkia	% 32
21. Frantsesa	% 19

III. taula. Ikuspuntuak adierazten dituzten erantzunak.

Ikuspuntuak	Maiztasuna
22. Escolak ez du ezertarako balio	% 92
23. Eskola etorkizuna da	% 46
24. Eskola presondegia bezalako da	% 35
25. Eskola arrazista da	% 29

IV. taula. Ume ez-ijitoen aipamenak.

Eskolako irakasgaiak	Maiztasuna	Eskolari dagozkion ezaugarriak	Maiztasuna
1. Gramatika	% 82	1. Ikastea	% 99
2. Geografia	% 80	2. Eskolatzea	% 99
3. Frantsesa	% 80	3. Hausnartzea	% 97
4. Irakurketa	% 80	4. Etxeko lanak	% 88
5. Historia	% 79	5. Memoria	% 86
6. Idazketa	% 78	6. Ulertzea	% 82
7. Kontaketa	% 77	7. Ondo hitz egitea	% 70
8. Zientziak	% 70	8. Argitasuna	% 69
9. Marrazketa	% 62	9. Nota onak	% 56
10. Matematika	% 62	10. Motxila	% 48
11. Ingelesa	% 56	11. Hezkuntza	% 40
12. Gaztelania	% 55	12. Zorroa	% 38
13. Biologia	% 48	13. Kultura	% 38
14. Fisika	% 38	14. Koroa	% 24
15. Informatika	% 38	15. Zaindariak	% 22
16. Hizkuntza biziak	% 36	16. Lana	% 20
17. Kantua	% 22	17. Kirola	% 19
18. Musika	% 20	18. Jolas-garaia	% 18
19. Jokoak	% 18	19. Futbola	% 17
20. Arte plastikoa	% 16	20. Abisuak	% 16
21. Psikologia	% 15	21. Borroakak	% 14
22. Antzinako zibilizazioak	% 11	22. Etorkizuna	% 12
23. Ipuinak	% 10	23. Graffitiak	% 11
24. Gizarte-bizia	% 6	24. Ateraldiak	% 10
25. Eperik gabeko lan-kontratua	% 4	25. Orduategiak	% 10
		26. Jolastea	% 8
		27. Lagunak	% 7
		28. Obeditzea	% 7
		29. Orientazioa	% 6
		30. Denbora okupatzea	% 6
		31. Lanbidea	% 5
		32. Erantzukizuna	% 4
		33. Estortsioa	% 3
		34. Giroa	% 3
		35. Estimatzeta	% 3
		36. Ikerketa	% 2

Ume ijitoen aipamenek agerian uzten dute eskolaren irudipen oso pobrea dutela, bai kalitatez, bai kantitatez, ume ez-ijitoek ez bezala. Lehenek 25 hitz aipatzen dituzte; bigarrenak, aldiz, 61. Ijitoen irudipena hiru ardatzen inguruan antolatzen da, oro har: erabilgarritzat jotzen dituzten ezaugarriak, berehalako ekarpena ematen dietenak; ezaugarri pedagogikoak, eskolan irakasten denari buruzkoak; eta ikuspuntuak. Galdekatutakoek erabilitako forma semantikoengatik egin dugu sailkapena horrela.

Lehen ardatzean bildu ditugun aipamenak (I. taulan) errealitate praktikoari dagozkio; hau da, berehalako ekarpenari edo baliagarritasunari. Eskolak gogora zer ekartzen dien galdetu diegunean, gehien-gehienek honela formulatu dute erantzuna: «Eskolakko balio du...», eta ez «Eskolak ... irakasten du» —ume ez-ijitoez bigarren formulazio mota hori asko erabili dute—. Honela formulatuta daude lehen bederatzi erantzunak, hau da, maiztasun handiena dutenak (% 80 eta % 100 artean): 1. *Eskolak lan bat aurkitzeko balio du*; 2. *Eskolak diru-laguntzak lortzeko balio du*; 3. *Eskolak administrazio-agiriak betetzeko balio du*; 4. *Eskolak gida-baimena lortzeko balio du*; 5. *Eskolak gurasoek deskantsatzeko balio du*; 6. *Eskolak ez-ijitoez ezagutzeko balio du*; 7. *Eskolak jolasteko balio du*; 8. *Eskolak dirua irabazteko balio du*; 9. *Eskolak diploma bat lortzeko balio du*. Ondoko erantzunak maiztasun apalagoak dituzte (% 23 eta % 50 artekoak). Ijitoentzat interesik ez duten ezaugarriak dagozkie: 10. *Eskolak ikasketa luzeagoak egiteko balio du*; 11. *Eskolak independente bihurtzeko balio du*; 12. *Eskolak argiago bihurtzeko balio du*.

Bigarren ardatzeko erantzunak (II. taulan) eskola ikasteko lekutzat daukatenak dira. Ohartu gara oso gutxi aipatzen dituztela eskolak benetan irakasten dituenak (irakasgaiak). Izan ere, hiru erantzunetan baino ez dira agertzen: 13. *Eskolak irakurtzen, idazten eta kontatzen irakasten du*, maiztasun handikoa —% 100—; 18. *Eskolak musika irakasten du*, % 97ko maiztasunarekin, eta 21. *Eskolak frantsesa irakasten du*, oso maiztasuna apalarekin —% 19—. Aldiz, 14. *Eskolak diziplina irakasten du*, 15. *Eskolak garbia izaten irakasten du*, 16. *Eskolak obeditzen irakasten du* eta 17. *Eskolak kortesia irakasten du* erantzunak maiztasun handia dute (% 98 eta % 100 artean). Azken bi erantzunak, 19. *Eskolak zuzentasuna irakasten du* eta 20. *Eskolak ongia eta gaizkia irakasten ditu*, hurrenez hurren, % 95eko eta % 32ko maiztasuna dute; horrek adierazten du ijitoez eskolan balio moralak ere ikasten direla uste dutela, baina hein apalagoan.

Azken erantzun mota bat bereizi dugu; hau da, eskolari buruzko ikuspuntuena. Hiru erantzunak iritzi ezkorra adierazten dituzte: 22. *Eskolak ez du ezertarako balio* (oso maiztasun handikoa: % 92), 24. *Eskola presondegi bat bezala da* (% 35), eta 25. *Eskola arrazista da* (% 29). Aldiz, 23. *Eskola etorkizuna da* erantzunak iritzi baikorra adierazten du, baina adostasuna ez du oso altua: % 46.

Ijitoen eta ez-ijitoen irudipenak alderatuta, argi agertzen da edukiak oso ezberdinak direla. Izan ere, ez-ijitoen aipamenak (IV. taulan) oso anitzak dira, bai eskolako irakasgaiak dagokienez: *geografia*, *frantsesa*, *historia*, *irakurketa*, *idazketa*, etab. (25, guztira); bai eskolako irakasgaiak erlazioatutako funtzio kognitiboak dagokienez: *ikastea*, *memorizatzea*, *eskolatzea*, *ulertzea*, *hausnartzea*, *ondo hitz egitea* (oso maiztasun handikoa). Horrez gain, erantzunetan arauak eta zigorrrak (*ordutegiak*, *etxeko lanak*, *zaindariak*, *abisuak*, etab.), «sariak» (*nota onak*), eskolako tresnak (*motxila*, *zorroa*, etab.) eta aisia (*jolas garaia*, *ateraldiak*, *lagunak*) ere aipatzen dituzte; 36 termino erabili dituzte, guztira.

Aipamenen azterketak argi eta garbi erakusten du populazio batetik bestera oso ezberdinak direla. Hiru erantzun soilik dituzte komunean, eduki pedagogikoei buruzkoak: 13. *Irakurtzea*, *idaztea* eta *kontatzea*, 18. *Musika* eta 21. *Frantsesa*. Nabarmentzekoa da ijitoei eskolako diziplinari dagozkion ezaugarriak (ordutegia-

ren ondoriozko moldakaiztasuna, bertan egoteko obligazioa...) oso behargarriak egiten zaizkiela. Hala ere, arauak ez dituzte argi eta garbi adierazten (*ikastea, etxeko lanak egitea, etab*). Harritzekoa da, baita ere, eskolako funtzio kognitiboei dagozkien hitzik ez dela batere agertzen (*argiago bihurtzea* salbu): *ikastea, memorizatzea, hausnartzea...* Era berean, ez dute eskolako alde onik ez saririk aipatzen, *nota onak, jolas-garaia, lagunak, giroa, kirola, etab*. Ijitoen aipamenean azterketak dudarik gabe agerrarazten du eduki pedagogiko guztiei erabat iragazgaitz zaizkiela. Eskolaren baliagarritasun-ikuspegia dute, berehalako ekarpenetan oinarritua, eskola nolakoa nahi luketen abiapuntutzat hartuta. Beste hitzetan, eskola interpretatzeko, beren kulturari dagokion irakurketa-taula erabiltzen dute. Horren adierazgarri argienetako bat *eskolak lanbide bat lortzeko balio du* erantzuna da.

b. Zalantza-galdeketa-aren emaitzak

2004an, erantzun gehien-gehienek maiztasun handia zutenez, denak sartu genituen zalantza-galdeketa. Ezeztatze-tasak V. taulan jaso ditugu. Erantzunak «ezetz esango nuke» erantzunaren portzentaje txikienetik handienera sailkatuta daude. Adostasun maila % 90ekoa edo altuagoa denean, ezaugarria irudipenaren mui zentralaren barne dela ondorioztatu dugu. «Eskola arrazista da» eta «eskola presondegi bat da» ez ditugu egin, zalantza-galdeketa formulatu ezinak zirelako.

V. taula. Ezeztatze-tasa.

1. Egunerero, Antoine irakurtzen, idazten eta kontatzen irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 0 Ezetz esango nuke % 100
2. Egunerero, Tony lanbide bat irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % Ez dakit % 1 Ezetz esango nuke % 99
3. Egunerero, Mathias diru-laguntzak lortzeko aukera ematen ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 1 Ezetz esango nuke % 99
4. Egunerero, André diziplina (esnatzeko, jateko, lo egiteko ordutegiak errespetatzen) irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 1 Ezetz esango nuke % 98
5. Egunerero, Pierre garbia izaten irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 2 Ezetz esango nuke % 98
6. Egunerero, Raoul gida-baimena lortzen irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da?? Baietz esango nuke % 1 Ez dakit % 2 Ezetz esango nuke % 97
7. Egunerero, Luc frantsesez ondo hitz egiten irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 3 Ezetz esango nuke % 97
8. Egunerero, Marcel obeditzen (zintzo ibiltzen) irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 4 Ezetz esango nuke % 96
9. Egunerero, Henri dirua irabazten irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 4 Ez dakit % 0 Ezetz esango nuke % 96
10. Egunerero, Pascal “payoak” ezagutzeko aukerarik ematen ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 3 Ez dakit % 2 Ezetz esango nuke % 95
11. Egunerero, Bertrand ezer baliagarri irakasten ez dion (ezertarako balio ez duen) leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 1 Ez dakit % 4 Ezetz esango nuke % 95
12. Egunerero, David argiago bihurtzen irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 2,5 Ez dakit % 2,5 Ezetz esango nuke % 95
13. Egunerero, Nicolas adeitsua izaten, kortesia izaten irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 3 Ez dakit % 2 Ezetz esango nuke % 95
14. Egunerero, Lazare zuzena izaten irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 2,5 Ez dakit % 3,5 Ezetz esango nuke % 94
15. Egunerero, Michel diplomarik ematen ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 1 Ez dakit % 6 Ezetz esango nuke % 93

16. Eguner, Jean-Baptiste administrazio-agiriak betetzen irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 2 Ez dakit % 5 Ezetz esango nuke % 93
17. Eguner, Arnaud ongia eta gaizkia irakasten ez dizkion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 3 Ez dakit % 4 Ezetz esango nuke % 93
18. Eguner, Eric bere gurasoei deskantsatzeko aukerarik ematen ez dien leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 0 Ez dakit % 9 Ezetz esango nuke % 91
19. Eguner, Fernand etorkizunera prestatzen ez duen leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 6 Ez dakit % 3 Ezetz esango nuke % 91
20. Eguner, Christophe musika irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 7 Ez dakit % 3 Ezetz esango nuke % 90
21. Eguner, Patrice jolasteko aukerarik ematen ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 8,5 Ez dakit % 6,5 Ezetz esango nuke % 85
22. Eguner, Bruno independente izaten irakasten ez dion leku batera joaten da. Zure ustez, eskolara joaten al da? Baietz esango nuke % 26 Ez dakit % 45 Ezetz esango nuke % 29

Galdeketa horren emaitzek adierazten dute 22 erantzunetatik 20ren ezeztatze-tasa % 90 eta % 100en artekoa dela (1.etik 13.era adostasuna % 95 eta % 100en artekoa da, eta 14.etik 20.era % 90 eta % 95en artekoa). Ezeztatze-tasak, beraz, 20 erantzuni dagokienez, % 100etik gertu daude; horrek esan nahi luke eskolaren irudipen sozialak gutxienez 20 osagai horiez osatutako sistema zentrala duela. Hori, baina, ezinezkoa da. Gure ustez, irudipen sozial ez-autonomoa da, edo, behintzat, obretan dagoena. 2004an hipotesi hau egin genuen: azpiegituraketa periferikoa zela (AEP), multzo zabalago eta egituratu batean sartuta; hau da, nortasunaren irudipenean. Izan ere, nortasunaren irudipenaren ikerketan, Anne Marie Mamontoffek, antzekotasun-ikerketan oinarrituta, agerian utzi zuen «eskola» ezaugarria oso lotuta dagoela muin zentralarekin (Mamontoff, 1998 eta 2010).

Zer esan zitekeen, 2004an, azpiegituraketa periferiko horren etorkizunaz? Autonomo bihurtuko al zen; hau da, ijitoen unibertsoan irudipen berri bat sortuko al zen, eskola barneratzeko? Ala kultura arteko irudipen ez-autonomoa geratuko al zen? Bigarrena jo genuen sinesgarrien. Eta hori egiaztatu zuten, hain zuzen, 2010eko emaitzek.

3. Irudipen ez-autonomoa baieztatuta, 2010ean

2004an formulatutako aipamenetatik abiatuta, objektuaren ezagutzari buruzko galdeketa egin genuen; emaitzak beheko taulan agertzen dira.

VII. taula. Objektuaren ezagutzari buruzko galdeketeren emaitzak.

1. Zure ustez, irakurtzen, idazten eta kontatzen ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 0 Bai, erabat: % 100
2. Zure ustez, lanbide bat ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 0 Bai, erabat: % 100
3. Zure ustez, diru-laguntzak lorraraztea, eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 0 Bai, erabat: % 100
4. Zure ustez, diziplina ikastea (esnatzeko, jateko, lo egiteko ordutegiak errespetatzea) eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 0 Bai, erabat: % 100
5. Zure ustez, garbia izaten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 3 Bai, erabat: % 97
6. Zure ustez, gida-baimena lortzen ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 1 Beharbada: % 2 Bai, erabat: % 97
7. Zure ustez, frantsesez ondo hitz egiten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 4 Bai, erabat: % 96
8. Zure ustez, obeditzen (zintzo ibiltzen) ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 0 Bai, erabat: % 100
9. Zure ustez, dirua irabazten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 5 Beharbada: % 9 Bai, erabat: % 86
10. Zure ustez, payoak ezagutzeko aukera ematea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 3 Beharbada: % 2 Bai, erabat: % 95
11. Zure ustez, alferrrikako gauzak (ezertarako balio ez dutenak) ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 2 Bai, erabat: % 98
12. Zure ustez, argiago izaten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 2 Beharbada: % 8 Bai, erabat: % 90
13. Zure ustez, adeitsua izatea, kortesia izaten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 2 Bai, erabat: % 98
14. Zure ustez, zuzena izaten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 2,5 Beharbada: % 3,5 Bai, erabat: % 94
15. Zure ustez, diploma bat lortzea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 4 Beharbada: % 6 Bai, erabat: % 90
16. Zure ustez, administrazio-agiriak betetzen ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 0 Beharbada: % 2 Bai, erabat: % 98
17. Zure ustez, ongia eta gaizkia ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 3 Beharbada: % 4 Bai, erabat: % 93
18. Zure ustez, etorkizunerako prestatzea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 6 Beharbada: % 2 Bai, erabat: % 92
19. Zure ustez, musika ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 7 Beharbada: % 3 Bai, erabat: % 90
20. Zure ustez, jolastea eskolaren ezaugarrietako bat al da? Batere ez: % 8 Beharbada: % 6 Bai, erabat: % 86

21. Zure ustez, eskolaren ezaugarrietako bat al da kolegiora eta lizeora (hau da, bigarren hezkuntzara) joateko prestatzea?		
Batere ez: % 7	Beharbada: % 8	Bai, erabat: % 85
22. Zure ustez, independente izaten ikastea eskolaren ezaugarrietako bat al da?		
Batere ez: % 25	Beharbada: % 45	Bai, erabat: % 30
23. Zure ustez, presondegia eskolaren ezaugarrietako bat al da?		
Batere ez: % 52	Beharbada: % 20	Bai, erabat: % 28
24. Zure ustez, arrazismoa eskolaren ezaugarrietako bat al da?		
Batere ez: % 58	Beharbada: % 19	Bai, erabat: % 23

Emaitza horietan oinarrituta, zalantza moduko galdera bat gehitu genuen: «Ijito eskolatua benetako ijitoa al da?».

Baietz esango nuke: % 3	Ez dakit: % 0	Ezetz esango nuke: % 97
-------------------------	---------------	-------------------------

2010ean, 24 ezaugarritik 21ek % 85 eta % 100 arteko «bai, erabat» erantzuna izan zuten. Erantzun horiek 2004ko joera baieztatu egin zuten. Argi dago ezin direla 21 ezaugarri zentral izan. Bestalde, ijito ikasia ez da ijito gisa aintzat hartzen (% 97ko ezeztatze-tasa). Praktikan, eskolako porrotak jarraitzen du, eta aldi bereko ezaugarri batzuek irauten dute: gurasoen motibazio faltak eta absentismoak. Eskola alferrikakotzat jotzen jarraitzen dute, irakurtzen eta idazten ikasteko izan ezik.

Gure iritziz, beraz, irudipen «ahula» edo nortasunari lotutako AEPa da, 2004an formulatu genuen bezalaxe. AEP hori defentsa-sistema iraunkorra da, eta badirudi ez duela aldatzeko asmorik. Are zailago aurreikus daiteke aldatzea, eskola-praktikak ez baitira lehen baino gehiago gauzatzen. Ikasketa tradizionala eta dagozkion balioak eskola-praktika deskodetzen duen sistemaren mugarririk dira. Nortasunarekiko lotura nabarmen agertzen da pertsonen galdetzen diegunean ijito ikasia ijitoa denetz; era inplizituan, irakaskuntza zalantzan jartzen baitugu. Bada, zalantza-galdera horri emandako erantzunek erakusten dute ikasketa tradizionalaren ezaugarriek nortasuna zehaztu egiten dutela. Hau da, komunitateak prestatua izatea nortasun baloratzailerik gordetzeko eta funtzionarazteko ezinbesteko ezaugarria da. Taldetik kanpokoak bezala ikasitako subjektu bihurtzeak nortasuna arriskuan jartzen du.

Ondorioa

Zein 2004an erabilitako zalantza-teknikaren bidez, zein 2010ean erabilitako ezagutzaren teknikaren bidez, emaitza berak lortzen dira. Eskolaren irudipena «ahula», ez-autonomia, muin zentralik gabekoa dela adierazten dute. Antzinatasunaren eta bereziki nortasunaren menpeko azpiegituraketa periferikoaren (AEP) hipotesiari eusten diogu. AEP hori bi erreferentziarekiko eraiki da; batetik, antzinako objektuekiko, hau da, ideologia kultural tradizionalari dagozkion objektuekiko; eta, bestetik, antzinako balioen kontra datozen objektu beriekiko. Objektua interpretatzeko tradizioan oinarritutako irakurketa-taula erabiltzen duen kultura arteko irudipena dela esan daiteke. Hortaz, eskola-praktikak ez daude aktibatuta.

«Eskola» objektu sozialaren esanahiak ez dira balioen sisteman sartzen. Antzina-ko sistemak etengabe interpretatu eta berreraikitzen ditu. Eskola ezin da atsegin-iturri izan daitekeen objektu sozialtzat jo, nortasunaren kontrako ideologia garraiatzen duelako, eta beraz, ijitoen unibertso kognitiboak ezin duelako ulertu eta barneratu. Nortasunaren kontrako irudia du, baina, aldi berean, taldeak bizirauteko beharrezkoa denaren irudia ere badu. Hortaz, taldeak praktika batzuk negoziatzea lortu behar du, baina sistema ideologikoa zalantzan ez ezartzeko eta ingurumenaren eskakizun minimoei erantzuteko gisan. Eskolaren ukapenak jarraitzen du, nortasuna desegituratzen duen heinean, eta eskolako praktikak *a minima* egiten dituzte, eskolak ekartzen dituen ekarpenak ez galtzeko. Praktika berriak izanagatik, zentzu berririk gabeko oskol hutsak dira; ingurumenari azaletik egokituta daude, arau-diskurtso baten bidez.

Gure hipotesia da AEP hori ondo errotutako defentsa-sistema dela, egitura egonkor gisa iraun duten eta sendotu diren taldearen nortasuna eta balio-sistema babesteko. Eskola-praktika ez dute, beraz, berenganatzen. Ikasketa tradizionala eta dagozkion balioak ekidinezinak dira. Gure ustez, ikasketa hori nortasunaren osagaietako bat da, nobere burua definitzeko ezinbestekoa den heinean. Atsegin-iturria den nortasuna komunitatearen harremanetan eta balioetan oinarritzen den nortasuna da. Eskolatua izatea *gadjo* baten antza hartzea da. Ijitoen kolektibo osoak ukatzen du eskola. Eskolak transmititzen duen ideologia dela-eta, eskola-praktikak ez dira aktibatzen. Ikasketa tradizionalari buruzko ikuspuntuari ezin diote eragin. Eskola sedentario bihurtze behartuaren barne da; ijitoen balioen kontra egiten du, era esplizituan. Ezin da, beraz, bere horretan, unibertso mentaletan barneratu.

Erreferentzia bibliografikoak

- Abric, J.-C. (1994): "Pratiques sociales, représentations sociales", in J.-C. Abric (zuz.), *Pratiques sociales et représentations*, PUF, Paris, 217-238.
- Abric, J.-C. eta Vergès, P. (1996): *Formes et traitements de questionnaires en analyse de représentations sociales*, Irudipen sozialen III. nazioarteko konferentziako hitzaldia, iraila, Aix en Provence.
- Browarski, K. (2001): *Représentation sociale du médicament. Effets des pratiques de consommation et de l'implication*, doktorego-tesia, Université de Provence.
- Camilleri, C. (1985): *Anthropologie culturelle et éducation*, Lausanne, UNESCO/Delachaux et Niestlé.
- Camilleri, C. eta Vinsonneau, G. (2002): *Psychologie et culture. Concepts et méthodes*, Armand Colin, Paris.
- Flament, C. (1994): "Structure, dynamique et transformation des représentations", in J.-C. Abric (zuz.), *Pratiques sociales ...*, op. cit., 37-58.
- Grize, J.-B.; Vergès, P. eta Silem, A. (1987): *Salariés face aux nouvelles technologies*, CNRSko itemak, Paris.
- Katerelos, I. (1993): *Pratiques, conditionnalités et sous-structuration au sein des représentations sociales*, doktorego-tesia, Université de Provence.
- Mamontoff, A.-M. (1998): "La transformación de la representación de la identidad : el caso de los gitanos nomadas y sedentarios", *Boletín de psicología*, **6**, 11-30.
- , (2010): *Tsiganes et représentations sociales: méthodes de recherche et problématisation*, Intercommunications, Brusela.

- Moliner, P. (1994): "Les méthodes de repérage et d'identification du noyau des représentations sociales", in Ch. Guimelli (zuz.), *Structures et transformations des représentations sociales*, Delachaux et Niestlé, Lausanne, 199-232.
- , (1996): *Images et représentations sociales : de la théorie des représentations à l'étude des images sociales*, Presses universitaires de Grenoble, Grenoble.
- , (2001): *La Dynamique des représentations sociales*, Presses universitaires de Grenoble, Grenoble.
- Morin, M. (1994): "Entre représentations et pratiques: le sida, la prévention et les jeunes", in J.-C. Abric (zuz.), *Pratiques sociales...*, *op. cit.*, PUF, 109-144.
- Morin, M. eta Vergès, P. (1992): "Enquêtes sur une représentation en voix d'émancipation : le sida pour les jeunes", *Cahiers internationaux de psychologie sociale*, **15**, iraila, 46-75.
- Moscovici, S. (1961): *La Psychanalyse, son image et son public*, PUF, Paris.
- Roussiau, N. eta Bonardi, Ch. (2001): *Les Représentations sociales. État des lieux et perspectives*, Mardaga, Liège.
- Seca, J. M. (2001): *Les Représentations sociales*, Armand Colin, Paris.
- Vergès, P. (2001): "L'analyse des représentations sociales par questionnaire", *Revue française de sociologie*, 42. bol., **3**, uztaila-iraila, 537-561.
- Vinsonneau, G. (1997): *Culture et comportement*, Armand Colin, Paris.

